


# Sizilia eta Calabriako Pinus nigra subsp. laricio espeziearen pinudia

# 5.4.7

## *Pinar de Pinus nigra subsp. laricio de Sicilia y Calabria*



Goi mendi mediterraneoetako basoak dira, Tertiarioko erreliktikoak, Calabrian eta Etna mendian (Sizilia) hazten direnak, Etnaren laba geruzen eta substratu silizeoen gainean, lur arrokatsu, hareatsu eta azidoetan, 1600 m-ko garaieraraino. Multzo trinko samarrak dira, baina espezie gutxikoak. Zuhaitz-geruzan haritz submediterraneoak (*Quercus pubescens*, *Q. cerris*) eta pagoak (*Fagus sylvatica*) agertzen dira. Oihanpe sarrian, berriz, espezie hauek aurki ditzakegu: garatxo-belarrak (*Daphne laureola*), laharrak (*Rubus canescens*), *Cytisophyllum sessilifolium* eta zenbait genista espezie, horien artean nabarmena *Genista aetnensis* endemikoa

*Bosques de alta montaña mediterránea relícticos del Terciario que crecen en Calabria y el Monte Etna (Sicilia), sobre los campos de lava del Etna y sustratos silíceos con suelos rocosos, arenosos y ácidos hasta los 1600 m de altitud. Son formaciones relativamente densas pero pobres en especies en las que participan robles submediterráneos (*Quercus pubescens*, *Q. cerris*) y hayas (*Fagus sylvatica*) en el estrato arbóreo, con un sotobosque denso compuesto de especies como adelfillas (*Daphne laureola*), zarzas (*Rubus canescens*), *Cytisophyllum sessilifolium* y varias especies de genistas entre las que destaca la endémica *Genista aetnensis*.*

292	<i>Pinus nigra subsp. laricio</i>	Larizio pinua	Pino negral
174	<i>Fagus sylvatica</i>	Pagoa	Haya
338	<i>Quercus cerris</i>	Haritz turkiar	Roble turco
344	<i>Quercus pubescens</i>	Erkametza	Quejigo
313	<i>Populus tremula</i>	Lertxuna	Álamo temblón
123	<i>Cytisophyllum sessilifolium</i>	Elorri triska txiki	Rubiana redonda
522	<i>Chamaespartium sagittale</i>		Carquesa fina
532	<i>Genista germanica</i>		Aulaga
531	<i>Genista aetnensis</i>		Aulaga siciliana
548	<i>Rubus canescens</i>		Zarza cana
134	<i>Daphne laureola</i>	Garatxo belarra	Adelfilla
488	<i>Teucrium siculum</i>		Zamarrilla
560	<i>Thymus serpyllum</i>		Serpol